

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa – GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Kultura 04. <i>Cultura</i>	02. Gazteria 02. <i>Juventud</i>	450.203 Gazteen Partaidetza eta Sustapena 450.203 <i>Participación y Promoción Juvenil</i>

Gastuen programa honen bidez gazteriaren arloko politika integralei buruzko jarduketak zainduko dira, beti ere kontuan hartuta gure ustez horrek jarduteko hiru esparru nagusi dituela:

Lehenengo eta behin, pertsona gazteen askatasunerako eta emantzipaziorako prozesua erraztea, horretarako gazteriaren arloko zeharkako politikak sustatuz.

Bigarrena, gazteriaren arloko politikak pertsona gazteen bizitzako baldintzak errazteko eta hobetzeko balio duten neurriak sartu behar dituela, baina horien gaztetasunak irauten duen bitartean, horretarako besteak beste euren ekimenak eta sorkuntza informazioa, mugikortasuna, aisialdia eta astialdia bultzatuz; eta.

Hirugarrena, gazteen parte hartzea bera, funtsezko balorea delako eta ezinezkoa delako talde horretan inolako eraginik izango duen jarduketarik burutzea talde horren lankidetzarik gabe.

Gazteriaren arloko zeharkako politika horri dagokionez kontuan hartu behar ditugu azken urte hauetan foru sail guztien koordinazio ekimenen kontzeptualizazioan eta abian jartzean izan diren aurrerakuntzak, hau da, gazteen taldean eragina duten jarduketan arloan; halaber, aintzat hartu behar da Bizkaiko udalekiko koordinazioa. Kontua da nahitaezkoa dela plangintza estrategikoko prozesuei ekitea, hots, sailen arteko eta erakundeen arteko ikuspegietatik abiatuta hala gazteen aldeko zeharkako jaramona nola gazteentzako berariazko politikak sustatzeko atazak antolatze eta sustatzeko aukerak emango digutenak.

Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak foru aldundiaren gainerako sail guztiekin lankidetzan jarduten du berariaz gazteentzat diren egitarauetan eta baita arlo horri lotuta dauden sailen eta erakundeen arteko planetan ere. Toki eremuak duen gero eta garrantzi handiagoa aintzat hartuta aurrera antzean ere toki izakiei

A través de este programa de gasto se atenderán las actuaciones referidas a la política integral de juventud, entendiendo que ésta abarca tres grandes ámbitos de actuación:

En primer lugar, favorecer el proceso de emancipación de las personas jóvenes a través de una política transversal en materia de juventud.

En segundo lugar, la política de juventud debe impulsar las políticas específicas que incluyen aquellas medidas tendentes a facilitar y mejorar las condiciones de vida de las personas jóvenes mientras dura su tiempo de juventud, favoreciendo su iniciativa y creatividad, su información, su movilidad, su ocio y tiempo libre, entre otros aspectos.

En tercer lugar, se propicia la participación juvenil, como un valor fundamental en la medida en que no es posible plantear ninguna actuación que pretenda incidir en el colectivo joven sin contar con él.

En cuanto a la política transversal de juventud debemos tener en cuenta los avances conseguidos en los últimos años en la conceptualización y puesta en marcha de iniciativas de coordinación de los diferentes departamentos forales, en lo que respecta a las actuaciones con incidencia en el colectivo juvenil, así como en la coordinación con los ayuntamientos vizcaínos, es necesario acometer procesos de planificación estratégica, que permitan ordenar e impulsar, tanto la atención transversal como la promoción de políticas específicas dirigidas a los/as jóvenes desde una perspectiva interdepartamental e interinstitucional.

La Dirección General de Deporte y Juventud participa con el resto de los Departamentos de la Diputación Foral en los programas específicos para jóvenes, así como en los planes interdepartamentales e interinstitucionales relacionados. Teniendo en cuenta la importancia creciente del ámbito local, se continuará con la

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa – GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Kultura 04. <i>Cultura</i>	02. Gazteria 02. <i>Juventud</i>	450.203 Gazteen Partaidetza eta Sustapena 450.203 <i>Participación y Promoción Juvenil</i>

laguntzak ematen jarraituko da, zertarako-eta gazteen taldeentzako egiturak, egitarauak eta zerbitzuak sendotzeko

Gazteen bizimodua hobetu nahi bada, ezinbestekoa da etengabe aztertzea haien errealitatea eta beraien zalantzen, beharizanen eta arazoen berri jakitea. Horrela modu eraginkorrean nola esku hartu jakin daiteke eta neurri egokiak ezar daitezke gazteen onurarako jarduketak hobeto koordinatzeko eta haientzako baliabideak (Aldundiarenak zen toki erakundeenak) hobeto erabiltzeko. Helburu hori lortzeko, gazteen arloko informazioa, trebakuntza, azterketak eta ikerketak bultzatuko dira.

Gazteen taldeen gizarte esku hartzea lortzearen ondoretarako gizarte ekimenen parte hartzeko foroen sorkuntza bultzatuko da, hala udal esparruan nola administrazioaren eta gazteen taldeak eskuordetzen dituzten erakundeen arteko solaskidetzarako formulak sustatuz, adibidez Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan jarduteko hitzarmena mantenduz.

Ildo horretatik, toki erakundeen, gazteriaren alorrean lan egiten duten agenteen, gazte-erakundeen eta elkarteetan ez dauden gazteen partaidetza ahalbidetzen duten jarduerak sustatuko dira, beraientzat interesgarriak diren gaietan eta gazteen politiken garapenarekin lotutako kontuetan. Halaber, pertsona gazteek foru jarduketetan duten zuzeneko esku hartzea sustatuko da horretarako gazteen parte hartzea sustatuko duten ekimenak garatuz.

Ildo horretatik eta gazteen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko komunikazioa hobetzearen ondoretarako teknologia berrien erabilera azpimarratu eta sendotuko da, komunikatzeko eta parte hartzeko bitartekoak eta baliabideak diren ginoan, eta erreminta informatiko berriak garatuko dira.

concesión de ayudas a entidades locales para reforzar las estructuras, programas y servicios dirigidos al colectivo juvenil.

Con el objetivo de mejorar las condiciones de vida de las personas jóvenes se precisa, de manera permanente, analizar la realidad juvenil, y, conocer las cuestiones, necesidades y problemas del colectivo juvenil para poder intervenir eficazmente, adoptando distintas medidas que mejoren la coordinación de las actuaciones dirigidas al colectivo juvenil, y optimicen los recursos dirigidos a las personas jóvenes de Bizkaia en los ámbitos foral y local. Para ello se impulsarán las labores de información, formación, estudio e investigación en materia de juventud.

Para la consecución de la participación social de la población joven, se potenciará la creación de foros participativos de las iniciativas sociales, tanto en el ámbito municipal, como en el impulso de fórmulas de interlocución entre la Administración y las entidades representativas del colectivo juvenil como es el mantenimiento de un Convenio de colaboración con el Consejo de la Juventud de Euskadi.

En este sentido se promoverán actuaciones que posibiliten la participación de los Entes Locales, agentes que trabajan en el ámbito de la juventud, Entidades Juveniles y jóvenes no asociados en temas de su interés y materias relacionadas con el desarrollo de las Políticas Juveniles. Así mismo, se propiciará la participación directa de las personas jóvenes en las actuaciones forales, mediante el desarrollo de iniciativas que fomenten la participación juvenil.

En esta línea y con el objeto de mejorar la comunicación entre jóvenes y la Diputación Foral de Bizkaia, se incidirá en el uso de nuevas tecnologías como instrumento y herramienta de comunicación y participación, y se desarrollarán nuevas herramientas informáticas.